

Emaitza horrek erakusten du nolako baldintzak lortu diren zorra berriz finantzatzeko akordioan

EROSKI-K 85 MILIOI EUROKO ETEKINA IZAN DU LEHEN SEIHILEKOAN

- Ohiko etekin operatiboa, negozioaren eboluzioa adierazten duena, %10 igo da aurreko urtearen aldean, eta 65 milioi eurotara iritsi da
- Salmentak ia %2 igo dira EAEn, Nafarroan, Galizian eta Balearretan, zeinetan dagoeneko Zurekin eredu komertzialera aldatuta dauden sareko denda gehienak
- Taldeak beste 38 denda ireki ditu, eta 116 supermerkatu birmoldatu; eta, horren ondorioz, 208 lanpostu sortu dira

Elorrio, 2019ko irailaren 30a.-[EROSKI](#) Taldeak lehen sei hilekoko kontuak itxi ditu 2019ko uztailaren 31n, eta 85 milioi euroko emaitza positiboa izan du.

Denera, EROSKI taldeak 2.250 milioi euroko negozio zifra izan du. Nabarmenezkoa da salmentak %1,9 igo izana EAEn, Nafarroan, Galizian eta Balearretan, zeinetan Zurekin eredura aldatua baitago sarearen gehiena; horrek erakusten du kontsumitzaileek harrera ona egin diotela. Ohiko etekin operatiboak, negozioaren eboluzioa adierazten duenak, 65 milioi euroko emaitza lortu du lehen sei hilekoan; hortaz, %10 igo da joan den urteko epe beraren aldean; horren arrazoia da balio katearen efizientzia hobetu izana bai prozesu logistikoetan eta bai Zurekin eredu komertzialean.

Urteko lehen zatian, EROSKIk zorraren 68 milioi euro amortizatu ditu, eta, beraz, ia 1.800 milioi euro gutxitu du 2010etik hona. Aurreko konpromiso guztiak beterik, EROSKIk finantza akordio berria egin du hartzekodun guzti-guztiekin, eta horrek erakusten du bankuek proiektua eta haren negozio plana babesten dutela. Akordio berria indarrean sartu zen 2019ko uztailan, eta estaldura finantzarioa emango dio taldeari 2024ra arte.

"Kontuek erakusten dute nolako baldintzak lortu diren zorra entitateekin berriz finantzatuta, orobat errentamenduen NIIF16 araua lehen aldiz aplikatu izana", azaldu du EROSKIko finantza zuzendariak, Jose Ramon Anduagak.

Inbertsioa 42,4 milioi eurotara igo da propioak eta frankiziatuak kontuan hartuta, eta, hein handian, 116 supermerkatu birmoldatu eta 38 denda berri irekitzearen

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



ondorio da. Zehazki, supermerkatu propio bat, Cash and Carry bat, frankizia erako 32 saltoki, Dooers kirol oinetakoen bi denda eta bi bidaia bulego. Irekiera horiek egin eta dendak Zurekin eredura eraldatzearen ondorioz, EROSKI 208 lanpostu sortu ditu aurtengo lehen seihilekoan.

Taldeak sei milioi Bazkide Bezero ditu, EROSKI Cluben, CAPRABOren eta FORUM SPORTen txartelaren jabeak direnak. Urteko lehen seihilekoan, Taldeak 127 milioi euroko transferentziak egin ditu eskaintzetan eta sustapenetan, zeinak gero eta pertsonalizuagoak baitira.

Bestalde, EROSKI S. COOP. kooperatiba nagusiak 93 milioi euroko etekina izan du ekitaldiko lehen seihilekoan.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziako operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.651 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak; horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak. Horretaz gain, sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkide gora.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)